

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onestea Krispiñako 32. sektorea birpartzelatzeko proiektua

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko irailaren 13an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onestea Krispiñako 32. sektorea birpartzelatzeko proiektua.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Krispiñako 32. sektoreko gauzatze-unitatea birpartzelatzeko proiektua ikusi da, zein aipatutako gauzatze-unitateko hitzarmen batzarreko lehendakariak ekainaren 10ean aurkeztu baitu.

Indarrean dagoen Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak zehazten du Krispiñako 32. sektoreko gauzatze-unitatearen eremu-fitxa.

Krispiñako 32. sektoreko gauzatze-unitateko hitzarmen batzarrak 2018ko apirilaren 25eko bilkuran eman zion hasierako onespena birpartzelatzeko proiektuari. Jabeei eta eskubideen titularrei jakinarazi egin zitzaion eta hainbat tokitan argitaratu zen –ALHAOn (2018ko ekainaren 1ean, 63.zenbakia), udalaren iragarki taulan (2018ko maiatzaren 11tik ekainaren 8ra) eta El Correo egunkarian (2018ko ekainaren 5ean)– proiektua jendaurrean jartzeko, guztia aipatutako hitzarmen batzarreko idazkaritzak 2019ko ekainaren 5ean egindako egiaztagiriarekin bat.

Udaleko arkitekto teknikoak aldeko txostena egin du 2019ko ekainaren 25ean.

Ezargarrak diren lege-arauei dagokienez, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 88.6 artikuluan ezartzen du txosten edo irizpenak onartzeak ebazpena arrazoitzeko balioko duela haren testuari gehitzen zaizkionean.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 48 artikulua xedatzen duenez, birpartzelatu daitekeen azalera guztia ordezkatzeko duten jabeek udalari, denen arteko adostasunez eta agiri publikoan jasota, aurkeztu dioten borondatezko birpartzelaziorako proposamena eta, hala badagokio, jabeek eragile urbanizatailearekin batera aurkeztu dutena, jendaurrean jarriko da hogeit egunetan, eta zerbitzu eskudunek proposamen horri buruzko txostena emango dute. Udalaren onspena jasota, hipoteka arloko arauetan ezarritakoari jarraituko zaio Jabetzaren Erregistroan sartzeko.

Aipatutako Legearen 163.3 legeak xedatzen duenez, hitzarmen-batzarrak, bere helburuak betetze aldera, birpartzelatzeari hasierako onspena emateko ahalmena eta eskubidea izango du sartutako jabetza-kuoten gehiengo osoz eta, gero, jendaurrean jarri beharko du dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean iragarkia argitaratuta, eta jabe guztiei jakinarazi beharko zaie. Udalari dagokio, nolana ere, egitasmoa behin betiko onartzea, lehenago jendaurrean egoteko eta entzunaldia egiteko epean izan diren alegazioei buruz ebazpena hartuta.

Hirigintza izaerako egintzak Jabetzaren Erregistroan sartzeari buruz, uztailaren 24ko 1093/1997 Errege Dekretuak xedatutakoa kontuan hartu behar da.

Bestetik, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak –Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen legearen testu bateratua onartzen du– 26.4 artikuluan xedatzen duenez, bestetik, funtsa edo funtsak jabetza horizontalaren edo higiezinaren multzoaren erregimenean eratzeko baimendu egiten du azalera osoa lursail bakartat jotzea, baldin eta lursailaren perimetroaren barruan ez bada geratzen aplikatzeko den lurralde eta hirigintza antolakuntzaren arabera jabetza publikoaren izaera eduki behar duen azalerarik, edo erabilera publikokoa izan behar duenik, edo 18. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letrak aipatzen duen lege betebeharra betetzeko zenbatu daitekeenik.

Tokiko Gobernu Batzarra da konpentsazio-proiektuei hasierako onespina emateko organo eskuduna; izan ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak –Tokiko Gobernu Eraberritzeko 57/2003 Legeak osatua– 127.1.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio hirigintza-kudeaketarako tresnak onestea.

Aurrekoa ikusirik, Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren arloko zinegotziak hau proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

1. Behin betiko onestea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Krispiñako 32. sektoreko gauzatze-unitatea birpartzelatzeko proiektua, zeinaren edukia dosierrean jasota dagoen.

2. Gauzatze-unitate hori birpartzelatzeko proiektuaren formalizazioa egiteko modua xedatzea: administrazio-agiri bidez –Hirigintza Kudeaketari buruzko Araudiaren 113.1 artikuluan xedatutako moduan–, edo eskritura publiko bidez –interesdunek hala nahi izanez gero eta beraien kontura– erabakia administrazio-bidean irmo izan eta gero–. Agiri bata zein bestea Jabetzaren Erregistroan inskribatu behar dira.

3. Erabaki honen ziurtapenaren hiru ale egiteko agintzea, 1093/1997 Errege Dekretuaren 2.2 artikulua haritik, ondoren erregistroan inskribatu ahal izan dadin.

4. Erabaki hau argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea. Erabakiak agortu egiten du administrazio bidea, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, adierazitako epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai –Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea–, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 16an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE